# Tolosaldeko Emakumeen Etxea: egitasmoa garatzeko prozesua

## Gune Zabalaren 1.bilera

elhuyar
ezagutuz aldatzea

TOLOSA UDALA Berdintasuna

eraiki e.e. emakumeen etxea



00

# Zer egingo dugu gaur?

- Aurrez egindako lana gogoratu
- Ikasturte honetako planteamendua aurkeztu eta adostu
- Kudeaketa-ereduaren proposamena aurkeztu eta kontrastatu
- Saioa itxi

**18:00-20:00**



01

# Zer egin dugu orain arte?

Aurrez egindako lanaren azalpena



## 01 EGINDAKO LANA GOGORATU

- **1. fasea:** 2018ko maiatzetik 2019ko urtarrilera.
- **Lanerako 3 gune**: Lantalde Politiko Teknikoa, Talde Eragilea eta Gune Zabala.
- Guztira **104 emakumek** hartu parte.
- Tolosaldeko **udalerrien % 60k** hartu parte.



## 01 EGINDAKO LANA GOGORATU



Landutako edukiak:

- ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosan?
- Etxearen ERABILTZAILEAK
- EZAUGARRI orokorrak
- PRINTZIPIO gidariak
- Etxearen JARDUERAK
- Udal Berdintasun ARLOAREN KOKAPENA
- Etxearen KUDEAKETA-EREDUA
- FUNTZIONAMENDUA
- Etxearen KOKAPENA ETA ANTOLAKETA espaziala
- Etxearentzako IZENA

# 01 Egindako lana gogoratu

## ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosan?



# **01** Egindako lana gogoratu

## Etxearen ERABILTZAILEAK

- Etxearen erabiltzaile nagusiak **16 urtetik gorako emakumeak*** izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak.

- Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea **jarduera mistoak edo gizonentzako** jarduerak antolatzen.



# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen ERABILTZAILEAK

Etxearen erabiltzaileek Etxean eskaintzen diren zerbitzu eta jardueratan parte hartzeko eskubidea izango dute, baita gune seguru batean egoteko eskubidea ere.

Betebeharrak, berriz, honako hauek izango dira:

- Etxearen funtzionamendurako eta erabilerarako arauak errespetatzea.
- Etxearen martxarekin lotuta hartutako konpromisoa(k) betetzea.
- Gainerako erabiltzaileekiko errespetuz jokatzea.



# 01 Egindako lana gogoratu

## PRINTZIPIO GIDARIAK

- Emakumeentzako bilgune, babesleku, arnas-gune, erreferentzia
- Anitza, irekia, multikulturala, inklusiboa
- Feminista, kontzientzia feminista sorraraziko duena
- Horizontala, parte-hartzailea, asanblearioa
- Herritarra, herriaren (eta eskualdearen) errealitatean eragingo duena
- Dinamikoa, bizia, aktiboa
- Etxetik, Tolosatik kanpora ere jarduerak garatuko dituena
- Hezitzailea
- Lotsagabea, zirikatzailea, iraultzailea
- Errespetuan, konfiantzan oinarritutakoa
- Belaunaldi artekoa
- Sortzailea
- Euskalduna
- Ekologikoki jasangarria
- Laikoa

# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen JARDUERAK

**ETXEA EZAGUTARAZTEKO, HARREMANAK ERAIKITZEKO ETA BERDINTASUNA/KONTZIENTZIA FEMINISTA SUSTATZEKO JARDUERAK:** tailerrak; ate irekiak; Emakumeen Etxeen arteko topaketak; kirol-jarduerak; jarduera kulturalak; kaleko ekintzak...

**ETXEAREN BESTELAKO JARDUERAK:** aholkularitza-zerbitzuak (psikologikoa, juridikoa, laborala...); behatoki kritikoa (azterketak, mapeoa...)...

**ETXEAREN SAREAK:** emakume feministen eta talde feministen errolda; hezkuntzaren esparruan elkarlanean jarduteko lantaldea...




Etxearen jarduerak Etxean nahiz Etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

# 01 Egindako lana gogoratu

## Kudeaketa-eredua: lanerako guneak

### ERABAKIGUNEA

- Etxearen erabakigune nagusia izango da: bertan hartuko dira erabaki nagusiak.
- Etxearen zuzendaritza edo gidaritza, Etxearen beraren printzipioei jarraituz, feminista izango da.
- Etxean parte hartu nahi duten Tolosaldeko talde feministetako ordezkariek osatuko dute.
- Etxearen dinamizatzaileak ere bertan parte hartuko du.
- Erabakiak kontsentsuz hartuko dira.

### KOORDINAZIO-GUNEA

- Gune honetan  Erabakiguneko ordezkariek eta Tolosaldeko udaletako ordezkari politiko eta teknikoek hartuko dute parte.
- Bere egiteko nagusia Erabakigunean adostutakoen eta erakundeen artean koordinazio-lana egitea izango da.
- Programazioa eta Etxearen funtzionamendu egokirako arauak izango dira bi lanketagai garrantzitsu.

# 01 Egindako lana gogoratu

## Kudeaketa-eredua: baliabideak

**TOLOSAKO UDALAREN ekarpena**

| Eraikina + hornidura | Berdintasun-teknikariaren lanaldi erdia | Jarduerak garatzeko aurrekontua | Gastu arruntak |
|---|---|---|---|

**TOLOSALDEKO UDALEN ekarpena**

| Etxearen dinamizatzailea | Jarduerak antolatzeko aurrekontua osatzea | Gastu arruntak estaltzen parte hartzea |
|---|---|---|

# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen funtzionamendua

Etxeak jendaurreko ordutegi bat izango du, Berdintasun Departamentuko langileek eta dinamizatzaileak bermatuko dutena.

Etxearen erabiltzaileek, ordutegi horretatik kanpo, Etxea erabiltzeko aukera edukiko dute:

- Beti ere, feminismoarekin lotutako eta emakumeen ahalduntzera bideratutako ekimenak egiteko bada.
- Horretarako, eskaera egin beharko da idatziz eta arduradun bat izendatuko da.
- Etxeko giltza kudeaketa-organoetan ordezkatuta dauden talde ezberdinetako ordezkari banak eta Etxeko udal-langileek izango dute (Berdintasun Arloko teknikari zein dinamizatzaile).

Etxearen funtzionamendu eta erabilera-arauak Koordinazio-gunean adostuko dira.

# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen antolaketa espaziala



ATZEALDEA
275 m



Etxea herrian seinalizatuta egotea ere proposatu da

# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen antolaketa espaziala

Lokalarentzako proposatzen diren espazioak eta hornidura:

| ESPAZIOAK | HORNIDURA |
|---|---|
| • Harrera-gela<br>• Gutxienez, 2 bilera- edo zerbitzu-gela<br>• Ekitaldi-aretoa<br>• Erakusketa-aretoa<br>• Teknologia berrien aretoa<br>• Liburutegi-artxiboa<br>• Atseden-gunea<br>• Sukalde/office-a<br>• Komunak | • Takillak edo armairuak taldeentzat<br>• Komunetan dutxa |

# 01 Egindako lana gogoratu

## Etxearen izenak

ANDRAGORA → ANDRA+AGORA → ANDRA(K)GORA! → ANDRA GORA!

ANDREZKETA

LURRA + HAZIAK → LUR-HAZIAK!

02

# Ikasturte honetako planteamendua aurkeztu eta adostu



# 02 Prozesuaren 2.fasea aurkeztu, kontrastatu eta adostu

## HELBURU NAGUSIAK

- Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa gauzatzeko **abiatutako prozesuari jarraipena ematea,**

  1. fasean landutakoa aintzat hartuta.
- Emakumeen Etxea martxan jartzeko **egin beharreko urratsak prozesuan inplikatutako herritar eta eragileekin partekatzea** eta adostea.
- Tolosako eta Tolosaldeko **emakumeen eta eragileen arteko sareak elikatzea**, eta **elkarlanean jarduteko baldintzak** lantzen jarraitzea.

## ZEHARKAKO HELBURUAK

- **Ikastea**. Aniztasunean, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko prozesua izatea.
- Tolosako nahiz Tolosaldeko eragileak eta herritarrak era honetako **ekipamendu baten beharraren inguruan sentsibilizatzen** jarraitzea.

# 02 Prozesuaren 2.fasea aurkeztu, kontrastatu eta adostu

## LANERAKO GUNEAK

**TALDE MOTOREA**
(4 bilera)

Prozesuari etengabeko segimendua egiteko gunea.

**TALDE ERAGILEA**
(6 bilera)

Lan-plangintzan jasotako hainbat lanketa garatzeko gunea.

**LANTALDE POLITIKO TEKNIKOA**
(4 bilera)

Prozesua eta emaitza ontzat emateko, nahiz lan-plangintzan jasotako hainbat lanketa bideratzeko gunea.

**GUNE ZABALA**
(2 bilera)

Egitasmoa sozializatzeko gunea

# 02 Prozesuaren 2.fasea aurkeztu, kontrastatu eta adostu



# 02 Prozesuaren 2.fasea aurkeztu, kontrastatu eta adostu

**TALDE ERAGILEAN LANTZEKOAK:**

- 1. fasean ebazteke geratu den lanketa bukatu: **Etxearen kudeaketa-eredua** adostu.
- **Etxearen elkartea** sortu (besteak beste, udalei dirulaguntza eskatu ahal izateko).
- **Erregelamendua** egin.
- Udalekin **lankidetza-hitzarmena** adostu.
- Etxearen **programazioa prestatu** (2022an).

**LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAN LANTZEKOAK:**

- 1. fasean ebazteke geratu den lanketa bukatu: **Etxearen kudeaketa-eredua** adostu.
- **Mozioak onartzeke** dituzten herriei segimendua egin: Abaltzisketa; Baliarrain; Belauntza; Larraul; Orendain.
- **Dinamizatzailearen kontratazioa** bideratu
- **Finantzaketa partekaturako eredua** adostu.

## 03

# Kudeaketa-ereduaren proposamena aurkeztu eta kontrastatu



# 03 Kudeaketa-ereduaren proposamena

## Kudeaketa-eredu partekatua

**Abiapuntua:**

**Dinamizatzailearen** eta Tolosako Udaleko **berdintasun-teknikarien** artean etengabeko harremana: Etxearen dinamikari etengabeko segimendua egin; jasotzen diren proposamenak «filtratu»; etab.



# 03 Kudeaketa-ereduaren proposamena

Lantaldeak

**Osaera:**

- Etxearen egitasmoan aktiboki parte hartzen duten **emakumeek edozein lantaldetan** parte hartzeko aukera edukiko dute. Partaidetza borondatezkoa izango da.

**Funtzioa:**

- Etxearen **helburuak eta adostutako ildo estrategikoak garatzeko** unean une beharrezkoak diren lantaldeak sortuko dira.
- Elkarren artean erlazionatuko diren eta **elkarrekin elikatuko diren gune irekiak** izango dira; eta funtzio nagusia izango da Etxean garatzen diren jardueren eta programen plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-lana modu koordinatuan erraztea.

**Dinamika:**

- Lantalde bakoitzak helburu, lan-plangintza eta **dinamika propioak** izango ditu. Lantalde batzuk iraunkorrak izango dira, eta beste batzuk, aldiz, aurreikusitako zereginak egin ondoren desagertu egin daitezke.

Adibidez: Etxearen programazioa prestatzeko lantaldea, komunikazio-lantaldea, kulturartekotasuna, liburutegi feministakoa, juridikoa,…

# 03 Kudeaketa-ereduaren proposamena

Talde Eragilea

**Osaera:**

- Lantaldeetako ordezkariak
- Tolosaldeko talde feministetako eta emakumeen elkarteetako ordezkariak
- Etxearen dinamizatzailea
- Berdintasun-teknikaria

**Funtzioak:**

- Etxearen erabilerarekin eta **funtzionamenduarekin lotutako alderdiei etengabeko segimendua** egitea: lantaldeak, Etxearen erregelamendua, etab.
- Etxearen **programazioari begira, egiten diren proposamenak aztertzea**, eta Etxearen printzipio, helburu eta lan-ildo estrategikoekin bat datozela bermatzea.
- Emakumeen Etxean antolatutako **jardueren funtzionamendua aldizka ebaluatzea** eta, hala badagokio, beharrezko hobekuntza-neurriak hartzea.
- Balizko arazoen aurrean **irtenbideak aurkitzeko proposamenak** egitea.
- **Koordinazio-gunean adostu ez diren erabakiak hartzea**, alderdi teknikoarekin eta funtzionalarekin lotuta daudenak.
- Gune Zabala edo asanbladaren bilerak prestatzea.

**Dinamika:** **Bilerak hilean behin** egingo dira, eta baita beharra ikusten denean ere. Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko.

# 03 Kudeaketa-ereduaren proposamena

**Koordinazio -gunea**

**Osaera:**

Erakundeen eta mugimendu feministaren **ordezkaritza parekidea** izango da.

- Berdintasuneko arduradun politikoak. Guztira 4 lirateke: bi Tolosako Udalaren partetik, eta beste bi Tolosaldeko udalen partetik.
- Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria
- Etxeko dinamizatzailea
- Tolosako Berdintasun Kontseiluko ordezkari bat
- Lantaldeetako ordezkariak, Tolosaldeko talde feministetako eta emakume-elkarteetako kideak.

**Funtzioak:**

- Etxeari eragiten dioten **araudi eta hitzarmenei segimendua** egitea eta, hala badagokio, berrikustea eta onartzea.
- Emakumeen Etxean antolatutako jardueren **funtzionamendua aldizka ebaluatzea** eta, hala badagokio, beharrezko hobekuntza-neurriak hartzea.
- Erakundeen eta emakumeen artean **koordinazioa eta solaskidetza** mantentzea.
- Etxeko jarduerak garatzeko **beharrezko baliabideak eta finantzaketa** bermatzea.

**Dinamika:** **Bilerak hilean behin** egingo dira, eta baita beharra ikusten denean ere. Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko.

# 03 Kudeaketa-ereduaren proposamena

Gune Zabala / Asanblada

**Osaera:**

- Emakumeen Etxeko ordezkariak
- Etxearen dinamizatzailea
- Berdintasun-teknikaria
- Berdintasuneko arduradun politikoak
- Tolosaldeko talde feministetako eta emakumeen elkarteetako kideak
- Egitasmoaren inguruan interesa duen edozein emakume

**Funtzioak:**

- Emakumeen Etxearen **lan-ildo estrategikoak** zehaztea.
- Hala badagokio, Emakumeen Etxearen **erregelamendua aldatzeko proposamenak** egitea eta berau ontzat ematea.
- Emakumeen Etxearen **ebaluazio orokorra** egitea eta, hala badagokio, esku-hartze berriak proposatzea.
- Emakumeen Etxearen **kudeaketa orokorraren nahiz lanerako guneen jarraipena** egitea.
- Eskualdeko **emakumeen arteko harremanak eta sareak** lantzea.

**Dinamika: Urtean gutxienez bi bilera** egingo dira, eta baita beharra ikusten denean ere. Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko.

- **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**
- **Hobetzeko proposamenik?**

# 04 Komunikazio-plana

- **Prozesua hasi dugula jakinarazteko prentsaurrekoa (2021-05-06)**



- **Tolosako Udaleko webgunean Emakumeen Etxeari buruzko atala; aktak, deialdiak eta informazio guztia:** **https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/tolosaldeko-emakumeen-etxea**

→ **Tolosaldeko udalek atalaren lotura jarriko dute euren webguneetan.**









05

## Saioa baloratu

- **Zerekin noa gaurko bileratik?**



elhuyar
ezagutuz aldatzea

MILA
Esker